



2023ko urriaren 17ko 2023-2132 Alkate Dekretuaren laburpena, Ikastetxeetako Kirol Jokoetan parte hartzen duten entitatei zuzendutako 2023. urteko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa: Entitate Onuradunen eskakizunak:

Entitate onuradunak izango dira Galdakako Udaleko Kirol Elkarten Udal Erregistroan izena emanda dauden Elkarteak eta Kirol Klubak, hala nola:

- Egoitza soziala Galdakako udalerrian dutenak, edo bertan bizi direnentzako programak garatzen dutenak.
- Eskoletako kirol-jokoetan parte hartzen duten entitate desberdinak, hala nola, ikastetxeetako gurasoelkarteak eta eskoletako jokoen eremuan diharduten udalerriko kirol-talde eta klubak, Bizkaiko eskoletako kirol-jokoetan inskribaturik daudenean.
- Federaturik dauden Galdakako klub eta elkarteak, kirolaren eremuan urteko izaera duten jarduerak gara ditzaten. Diru-laguntza eskatzen duten urtealdian zehar hiru urte edo gehiagoko antzinatasuna izan behar dute.

Bigarrena: Diru-laguntza ematearen helburua eta xedea:

Elkarten eta Kirol Kluben kirol-jardueren urteko programaren izaera desberdineko gastuak finantzatzea, Udalerrian asoziazionismoa sustatzen duten programak eta Galdakako Udaleko Kirol sailak garatzen dituen programak ordeztu edo osatzen dituzten jarduerak edo programak garatzen dituzten ekimen sozialak bultzatzeko helburuarekin.

Hirugarrena: Oinarri araupetzaileak:

Kultura, Berdintasuna, Gazteria eta Kirol Arloko diru-laguntzak emateko Oinarri Araupetzaile Bereziek, Udalbatzak 2014ko otsailaren 27an egindako bilkuran hartutako erabakiz, onespena izan dute eta bere testu osoa 2014ko maiatzaren 8ko 86. zenbakidun "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratu da.

Oinarri horiek eta deialdi hau, eskabide-eredua eta gainerako eredu normalizatuekin batera Udalaren web orritik jaitsi ahal izango dira:

<https://www.galdakao.eus/dirulaguntzak/Cultura,%20Juventud,%20Deportes%20e%20gualdad>

Era berean, Kultura, Berdintasuna, Gazteria eta Kirol Saileko udal bulegoetan eskura daitezke. Torrezabal Kultur Etxea -2. solairua, Agirre Lehendakariaren plaza, z/g. Galdakao.

Laugarrena: Zenbatekoa:

Ikastetxeetako Kirol Jokoetan parte hartzen duten entitatei zuzendutako diru-laguntzen zenbatekoa gehienez 6.000 €koa da eta 23.3411.481.01 aurrekontu-sailari egotziko zaio.

Bosgarrena: Eskariak aurkezteko epea.

Epea: Diru-laguntzak eskuratzeko eskabideak, erantsitako dokumentazioarekin batera, aurkezteko epea, **15 laneguneko** izango da, Deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskabideak Alkate-udalburuari zuzendu eta onuradunak edo ordezkatzeko duen pertsonak izenpetuta izan beharko dira.

Eskabide-eredua: Proiektu edo programaren eskabide-eredu normalizatua eta laburpen-fitxa eredu normalizatua daude, erakunde eskatzaileek nahitaez erabili beharko dutenak.